

Pankrea artifiziala intsulinaren ordeztu

EUROPAN milioi batetik gora pertsonak hartu behar dute intsulina egunero. Pertsona horien pankreak ez du sortzen gorputzeko azukrea disolbatzeko adina intsulina; ondorioz, inekzio bidez hartu behar dute.

Oraingo ez dago alternatibarik intsulina gorputzeratzeko inekzioentzat, pankreako zelulen transplantatzea ez bada, baina bide hori oso kasu gutxitan erabiltzen da, konplikazio handiak eragiten baititu. Duela gutxi, baina, gaixoentzat itxaropen bide bat zabaldu da, Frantziako CTTM zentro teknologikoko Hervé Pichonek azaldu duenez: pankrea artifiziala.

Gailua hamar zentimetroko aldeak dituen poltsa karratua da, barruan zelula biziak dituen. Gaixoaren sabelean txertatzen da eta haren bizitza osoan behar den intsulina sor dezake; horrela, inekzioaren morrontzatik askatuko litzateke inplantea jaso duen pertsona. Oraingo animaliekin egin dituzte probak, eta emaitza oso ona izan da. 2015erako iragarri dituzte gizakiekin lehenbiziko saiakerak. ■



Milioi bat europarrek baino gehiagok egunero inekjatu behar dute intsulina.



Auto baten abiadura marka berria



HENNESSEY VENOM GT izeneko automobila (argazkian) abiadura marka berria ezarri zuen otsailaren 14an, NASAREN Kennedy Space Center egoitzan.

Bi pertsonarentzako automobilen kategorian ezarri da errekorra: 435,31 kilometro orduko. Aipatu bezala, NASAREN egoitza bat erabili da horretarako: espazio-ontziak lurreratzeko erabiltzen den

bost kilometroko errepidea hautatu dute proba egiteko. Erraz gainditu zituzte aurreko marka guztiak. Bai Hennessey Venomen antzeko automobilen —orduko 431 kilometrokoa baitzen lehen—, baita Bat Formulakoena ere, hori orduko 397,48 kilometrokoa baita.

Abiadurarenaz gain, beste marka bat ere hautsi du autoak, azelerazioarena. 0tik 300eko abiadura lortzeko 13,63 segundo baino ez ditu behar izan. ■



Artikoa: 25 urteko galera minutu batean

Zientziaren Garapenerako AEBetako Elkarteak bideo deigarri bat erakutsi du aurtengo batzarrean. Artikoa 25 urteko epean izan duen bilakaeraren irudiak biltzen ditu bideoak, minutu bakarrean. Satellite bidezko irudiek garbi erakusten dute Artikoko izotza gero eta gazteagoa dela, eta azalera galtzen ari dela, urtetik urtera gero eta zailagoa baita udan galdutakoa berreskuratzea neguan. Kalkulatu dutenez, gutxienez lau urte dituen izotzak estalitako azalera %26tik %7ra igaro da 25 urteotan.

ttiki.com/61643
(Euskaraz)

Lurraren barnean itsasoan baino ur gehiago

Erresuma Batuko ikerlari talde batek lur azpian, 100 kilometroko sakoneran, gertatzen diren lurrikarak aztertuta, eta ondorioztatu du itsaso guztietan baino ur kantitate handiagoa dagoela bertan.

ttiki.com/61644
(Gaztelaniaz)

Meteoritoak ilargian

Ilargiaren gainazala meteorito askok jotzen du, baina orain arte detektatu den talkarik handiena 2013ko irailaren 11n gertatu zen. Eztanda hamabost tona TNTk eragingo luketaren baliokidea izan zen.

ttiki.com/61645
(Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16